



### Maristetako futbol-taldia

**L**uzia da Oñatiko unibersidadieraren historixia. Larehun eta berrogeita hamar urte baino gehixago dako XVI. mendeko eraikuntza bikain horrek. Sortu zanetik XIX.era arte, gorabehera batzuk izan arren, bizimodu nahiko normala euki eben. Baiña XIX.etik gaur egunera arte makiña bat kanbixu eta etenaldi sufridu bihar izan dau: azkenengo bi gizaldi honeittan unibersidadia ez ezik, bigarren maillako institutua, nekazaritza-eskolia, kuartela, ospittala, seminarixua eta lehenengo maillako eskolia be izan da. Gaur egun, dakitzuenez, hiru erakunde dagoz Zuazola obispuak jaso eraginddako etxe ederrian: Gipuzkoako Protokoluen Artxibua, Eusko Jaurlaritzaren HAEE-IVAP izenekua eta Naziñoarteko Institutu Soziojuridikua.

Akabaittera doian mende hau hasi zanian, Sancti Spiritus unibersidadiarri akaberia etorri xakon, goi-maillako ikastetxe moduan behintzat: 1901. urtia zan. Handik puntuko etorri ziran **fraile maristak** Frantziatik Oñatira. Hirugarren Errepublikariaren garaixa zan eta eliziaren eta estaduaren arteko hartu-emunak asko zittaldu ziran Frantzian. Eskolak eukain fraile eta monja askok beste lurralde batzuetara alde egin bihar izan euen. Sasue haretan heldu ziran Oñatira **monja beneditarrak** be eta Zaratekuan jarri ziran, orain Aker tabernia dagueen etxe horretan. Maristak, barriz, hutsik eguen unibersidadian ekin otzain mutikuentzako eskolak emutiari: lehen maillako ikasketak modutu zittuain **San Migel** izeneko kolejixuan eta lanbide-heziketa antzeko bat be bai, gau-eskolan.

Hogeita bost bat urte lan horreittan jardun ondoren, Oñatittek kanpora fan bihar izan euen maristak, 1928 aldera unibersidadian bigarren maillako institutua ipiñi zalako. Baiña gerra-denboran kendu egin euen institutua; unibersidadia atzera be irakaskuntzatik kanporako zeregifietarako eballi zan: kartzelia eta kuartela izan zan; eta gerraostian barriro ekarri zittuain maristak Oñatira beste hogeita bost bat urterako, hau da, 1960ko hamarkadan **Zuazola** institutua uratu zan arte. Fotografixia maristen bigarren egonaldixari dagokixu: 1948 ingurukua ei da eta bertan agiri diran mutikuak urte haretan ikastetxian egin zan **futbol-kanpeonatoko txapeldunak** dittugu, albueta bi arduradun gazte dakoilla. Hona hemen ezkerretik eskumara euron izenak:

Iñaxio **Urzelai**, Ramon **Arregi**, Iñaxio **Madina**, Jabier **Irizar**, Joxe Mari **Ezpeleta**, Juanito **Urzelai**, Antonio **Garai**, Joxe Mari **Martinez**, Andres Mari **Irizar**, Luis Mari **Madina**, Joxe **Arriaran**, Joxe Luis **Arregi** eta Pablo **Agirrezabal**.

J. E.

Argazkixa Antonio Garaik bialdu dosku Valentziatik eta argibidiak, barriz, Antonioren berari eta Joxe Mari Martinez de Albenizeri zor dostegu.

**OHARRA:** Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzto, zatoz!

# OGI BARRI

Foruen enparantza, 5 OÑATI  
Tfnoa.: 943 71 64 42

BERTAKO OGIA - BAGGETA  
KROISSANTAK - NAPOLITANAK  
ENSAIMADAK - BOLLOAK...

MURUAMENDIARAZeko  
PRODUKTUAK

